

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sestaoko Udala**

Sestaoko Udalean barne promozioaren bidez 3 sukaldari plaza jabetzan betetzeko deitutako hauta-probetan onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea.

96. zenbakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2017ko maiatzaren 22koan, hiru sukaldari plaza barne promozio sistemaren bidez jabetzan betetzeko Udalak deitutako hautespen-prozesuari dagokion hautagai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuta dago. Horiek hutsik daude langile funtzionarioen zerrendan.

Deialditik baztertu izatearen aurkako erreklamazioak aurkeztu edo zuzenketak egiteko ezarritako epea amaitu da, eta ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu. Eman zaizkidan aginpideak erabiliz

EBATZI DUT:

- 2017ko maiatzaren 22ko 96. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udal honek barne promozioaren bidez hiru sukaldari plaza jabetzan betetzeko deituriko hautaketa-prozesuko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda behin betikoa izatea.
- Behin-betiko onartzea hautaketa-prozesuan onartutako lehiatzaileei buruzko ondorengo zerrenda:

Onartuak

Nombre	DNI/NIF
CORRALES MORENO, THAIS	45816442M

Baztertutak

— Inor ez.

- Epaimahai Kalifikatzailea honako kideek osatuko dute:

Epaimahaiburua:

— Begoña Real de Asua Llona andrea, titularra, eta Dolores Arteagabeitia Apodaca andrea ordezkoa.

Batzordekideak:

— José Miguel Santamarina Cabriada jauna, titularra eta Valentín Fernández de Luco Martínez jauna, ordezkoa, Euskadiko Autonomia Elkartearen ordezkari.

— Gerardo Rodríguez Pérez jauna, titularra eta Julia Amalia Blanco Moreno andrea, ordezkoa.

— Beatriz Domínguez de Diego andrea, titularra eta Amaia Iriarte Mandaluniz andrea, ordezkoa.

— Aintzane Etxebarria Urkiola andrea, titularra eta Iratxe Etxebarria Arizmendi andrea, ordezkoa, Euskarako probarako.

Idazkaria:

— Juan María Magro Sánchez jauna, titularra eta Rosa Bolland Urizar andrea, ordezkoa.



4. Lehenengo azterketa lehiatzaile guztiek aldi berean egingo dute, 2018ko otsailaren 1ean, goizeko 10:00etan, Udaletxeko Udalbatza Aretoan. Froga horretara deituta geratzen dira onartutako lehiatzaile guztiak, eta ohartarazi egiten zaie bertaratu ezean eskubide horiek galduko dituztela.

Ebazpen hori argitaratzea indarrean dauden lege-xedapenei jarraiki.

Sestaon, 2017ko abenduaren 1ean.—Bigarren Alkateordea, Giza Baliabideetako ordezkaria